



**Beñat GAZTELUMENDI**  
Bertsolaria

# EUSKAL KULTURARI JARRIAK

1

Hara Negu Gorrizko egunek zenbat gau; zenbat izango gara hiru, bost, hamalau? Urrutiko intxaurrak gerturatu ta lau noiz berrituko dugu esaera zahar hau?

2

Nafarroa Arena, BEC edota Kursaal nahiz ez izan kultura globalen sukurtsal pluralean bakan ta bakanean plural hemen zer da kultura eta zer da euskal?

3

Urdaibain Guggenheim bat turisten gose da kultura bat ez denez mugatzen posera ingelesez sortua badu atmosfera zein da elikatuko duen biosfera?

4

Autogestioaren kontra zakur zaunkak, biralizatutako gau bateko mahukak, managerren enpresa erraldoien pautak... Zer erosi eta zer saltzen du Sold Out-ak?



5

Makurtu ez den herri honen lunbalgia, gaur berrogei urteko garaien magia nekatu gabe nahiko genuke plagia; kultur proiektu on bat al da nostalgia?

6

Ez banaute hornitzen hiru-lau lan gorik autonomoen kuotak patrika jango dit lokatzetan ez baita bermatzen zangorik abendutik harago ba al da Durangorik?

7

Nahiz ardoa mindu zen gure pitxarretan gure eztabaidetan, lubaki zaharretan ume bat jolasean dabil izarretan harrizko herri honen harri txintxarretan.

8

Kantatzen den herri bat ez den arren hilko beti ez ditugu hitz berak ibiliko eztarri hauskorrenak ez daitezen ito partitura berriak sortu eta kito.





**Unai**  
**GAZTELUMENDI**  
Bertsolaria eta  
marrazkilaria

